

## SANTA AGEDA

Gaur egun Euskal Herrian oraindik ere kontserbatzen da etxez-etxe errondan eta kantari irteteko ohitura. Egun kontatuak eta hautatuak izaten dira horiek. Hara nola: Eguberri bezpera, Urte zahar bezpera, Santa Ageda bezpera, San Nikolas, Maiatzaren hirua...

Erronda horien helburuak hauexek dira: ospakizuna, jaialdia, ospakizuna besteei adieraztea eta, bide batez, afaria egiteko dirua eta janaria jaso...

Ospakizun hauek badute zerikusirik bai paganismoarekin nola kristautasunarekin. Santa (Y)Agedaren gure ospakizun honek, kristautasunarekin zerikusi zuzena du. Euskal Herritik zehar igarotzen ziren erromesak Donejakue bidean, eta hauen bitartez sartu ziren gure herrian santu askoren debozioak, Santa Agedarena haien artean. Santa Ageda da gure herrian debozio berezia izan duen santa horietako bat, eta, dudarik gabe, koplaz zaharretan kantatuena. Bere inguruan kontakizun ugari dago, leiendak eta gisakoak.

Zergatik santa horri halako debozioa? Horra zenbait arrazoi:

1. Otsailaren 5a "Emakunde" eguna da. Garai batean emakumeak, etxetik aparte bizi sozialik egiten ez zuten, egun berezi batzuk izan ohi zituzten etxetik irten eta kaleaz jabetu zitezten. Horietako bat da Santa Ageda eguna.
2. Santa hau martirizatzean, bere borroeroek bularrak ebaki zituzten, eta ondorioz bularreko gaixotasunen zaindaria da.
3. XII eta XIV. gizaldi inguruetan, gure etxeak egurrezkoak ziren, beraz, erraz erretzen ziren. Suaren aurkako zaindaria zen Santa Ageda eta bere egun bezperan kandelak eta argizariak pizten zituzten gure aurrekoek su hori etxean gerta ez zedin. Agian hortik dator errondan eramaten ditugun kriseilu argien arrazoa.
4. Santa Ageda, haurdun dauden emakumeen zaindaria ere bada. Garai batean, Santa Ageda bezperan kanpaiak jotzen zituzten. Kanpai jotzeak, haurdun zeuden emakumeei erditze on bat opa izaten zien.
5. Neska mutilen arteko festa izaten zen garai batean. Bikote askok elkarren arteko deklarazioa egiteko aukeratzeko zuten egun hauxe. Gazteak eskean janariak jasotzen zituzten: lukainak, arrautzak... Neskek piper-opilak, intxaurrek eta gisakoak eramaten zituzten eta gero... afaria!

Ikasbidek betidanik ospatu du oso gurea den jaialdi hau. Elkarrekin gure ohituren zaindaria eta zabalzaile jokatu du beti.